

BARCELONA WINE WEEK 2025

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2025eko otsailaren 3-5
- **Tokia:** Montjuic azokagunea, Bartzelona
- **Maiztasuna:** urtero
- **Norentzat:** ardogintza sektoreko profesionalak
- **Izena emateko epea:** 2024ko uztailak 24
- **Azokaren webgunea:** www.barcelonawineweek.com

Eusko Jauriaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Euskadiko Elikaduraren Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **BARCELONA WINE WEEK 2025** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZIren bitartez. Azoka, Bartzelonako Montjuic azokagunean egingo da 2025eko otsailaren 3tik 5ra arte. Aurtengo edizioan, berrikuntza gisa, azokak bi pabiloi hartuko ditu, 1. eta 8. pabiloiak, hain zuzen ere.

AZOKAREN IZAERA

BWW EXHIBITION-ek gune hauek izango ditu:

- **BWW Lands:** Upategiak jatorri-deituren edo gainerako kalitate-zigiluen babesean antolatzen diren gunea.
- **BWW Brands:** Diseinu askeko parte hartze korporatiboa nahiago duten upategien, upategi-taldeen edo marka anitzeko banatzaileen gunea.
- **BWW Complements & Tech:** Diseinu askearekin parte hartzen duten ekipamendu, tresna, ardoaren osagarri, zerbitzu eta argitalpenen gunea.

Sektorizazio hori bat dator azokako kokapen-sektoreekin. BWWren antolakuntzak eskubidea du enpresa baten parte-hartzea kokapen-sektore jakin batera berbideratzeko, baldin eta erakutsi nahi diren produktuak ez badatoz bat hautatutako kokapen-sektorearen kategoriarekin.

AZOKAREN DISEINUA

BWWk aurkezten duen azoka-kontzeptuaren helburua da **lurralde presentzia** ematea kalitate-zigiluen babesean. BWW Lands guneko standen diseinua bakarra eta bateratua izango da, eta **upategiak taldekatzeko irizpide nagusia jatorri-deitura** izango da.

BWWren antolakuntza arduratuko da diseinuaz, muntaketaz, desmuntaketaz, grafikez, apaingarriez eta stand bakoitzeko altzariez.

EUSKO JAURLARITZAREN PRESENTZIA

Aurretik adierazi den bezala, azokaren formatua desberdina da, eta Eusko Jaurlaritzak ezin ditu Euskadiko mahastizaintza eta ardogintza sektoreko enpresak bildu Euskadi Basque Country aterkipean.

BWWren antolakuntza arduratuko da standaren diseinuaz, muntaketaz eta desmuntaketaz, bai eta azoka honetan upategien presentziaren inguruan hartu beharreko erabaki guztiez ere. Edizio honetan, berrikuntza gisa, kontuan hartuta azokak bi pabiloi dituela, Euskadiko espazioa, 1. pabiloian kokatu da.

PARTE HARTZEKO EREDUAK

Ohar garrantzitsua: 2025. edizioan, Eusko Jaurlaritzak 322 m²-ko eremua izango du guztira.

7 m²-ko stand-ereduan parte hartzeari emango zaio lehentasuna. Espazioa mugatua denez, inskribatutako enpresa guztiak sartu ondoren (ahal bada) oraindik lekua badago, izena emateko formularioan 14 m²-ko stand-ereduarekiko interesa adierazi duten enpresei jakinaraziko zaie, eta haien arteko espazioa zozketatuko da.

Era berean, izena eman duten enpresa gehiago egotearen kasuistika espazio erabilgarria baino handiagoa bada, 7 m²-ko standak esleitzeko hurrenkera inskripzio OSOA egiteko eskatutako dokumentu GUZTIAK aurkezten diren ordenaren arabera egingo da, eta **lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.**

7 m² ko Stand Eredua

Prezioa: 1.800 € + BEZ %21 = 2.178 €



14 m² ko Stand Eredua

Prezioa: 3.500 € + BEZ %21 = 4.235 €



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Partaidetza Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten eta Eusko Jaurlaritzako **Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta** dauden **enpresa ekoizleentzat** baino ez da.

Enpresa erakusleak egunean izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Inskripzioa egiteko, egiaztagiriak/frogagiriak bidali beharko dituzu.

AZOKA AURRETIK

- Enpresa erakusketariak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. BWWn egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman.
- Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Stand-a muntatzen den egunean enpresa erakusketariak bertan egon beharko du, adierazten zaion orduan bere salgaiak jasotzeko. BWW erakundeak inaugurazioa hasi baino 24 ordu lehenago stand-a entregatzeko konpromisoa du.

AZOKAN ZEHAR

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadikoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Enpresa erakusketariak standean egon beharko du azokak dirauen egun guztietan eta azoka zabalik dagoen ordu guztietan.

- Enpresa erakusketaria azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenker...) Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo. Halaber, enpresa erakusketari batek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresa erakusketariari.
- Azoka amaitzean, enpresa erakusketariak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu. Osterantzean, BWWk enpresa erakusketari bakoitzari fakturatuko dio lan gehigarrien kostua.
- Enpresa erakusketaria izango da azoka egiten den egunetan erakusketa- eta erakustaldi-jardueretan sor daitezkeen gorabeheren arduradun.

AZOKA ONDOREN

- Ebaluazio inkesta betetzea eta erakundearen jarraibideen arabera entregatzea.

PARTE HARTZEKO AUKERAK

1 AUKERA - 7 M² STAND

BWW Lands GUNEA

PREZIOA: 1.800 € + BEZ %21 = 2.178 €



ZERBITZUAK

- Standeko altzariak.
- Industria-tasa.
- Potentzia elektrikoa 24 ordu.
- Egun bateko 52 gonbidapen elektroniko.
- Erakusketariarentzako 6 sarrera.

STANDAREN XEHETASUNAK

Zorua:

- Gune horri egokitu zaion koloreko moketa.
- Binilo beltzeko errotulua, letra estandarizatuarekin, atzeko argidun errotuluaren aurrealdean.

Altzariak

- 60*120*90 cm-ko erakusmahaia, zurezko gainaldekkoa, eta 60*60*90 cm biltegitratze-buc-a.
- 2 taburete.
- Atzeraargizatutako pantaila bat 80* 90 cm-ko errotulurako.

Estruktura:

- 7 m²-ko standa, ezarritako diseinuaren arabera.
- Biltegitratzeko 200*140*80-ko altzari bat, OSB egurrezko akabera eta hozkailua jartzeko gune bat dituena, eta 120*140*80ko armairua, ate bikoitza eta sarraila dituena, baita biltegitratzeko gunea ere.
- Binilo beltzeko errotulua, letra estandarizatuak dituena atzetik argizatutako errotuluaren aurreko aldean.

Elektrizitatea:

- 1,1 KW-ko kaxa elektrikoa.
- Hozkailu eta beste trena batzuetarako entxufe-oina.
- Beste erabilera batzuetarako entxufe-oin hirukoitza.
- Argiztapen orokorra LED fokuen bidez.
- Potentzia elektrikoa 300 W-ko gutxieneko soberakina, erabilera librerako.

2 AUKERA - 14 M² STAND

BWW Lands GUNEA

PREZIOA: 3.500 € + BEZ %21 = 4.235 €



ZERBITZUAK

- Standeko altzariak.
- Industria-tasa.
- Potentzia elektrikoa 24 orduz.
- Egun bateko 53 gonbidapen profesional elektroniko.
- Erakusketariarentzako 7 sarrera.

Altzariak

- 60*120*90 cm-ko erakusmahaia, egurrezko gainaldekkoa, eta biltegitratzeko 60*60*90 cm-ko buc-a.
- 2 taburete eta 4 aulki.
- Atzeraargizatutako pantaila bat 80*90 cm-ko errotulurako.
- 80 cm-ko diametroa duen mahaia.
- 240*60*95 cm-ko beira-arasa bat, metalezko egitura tubularrekoa eta metakrilatozko beste bat.

Estruktura:

- 14 m²-ko standa, zehaztutako diseinuaren arabera.
- Biltegitratzeko 200x140x80-ko 2 altzari, OSB egurrezko akabera eta hozkailua jartzeko gune bat dituena, eta 120x140x80ko armairua, ate bikoitza eta sarraila dituena, baita biltegitratzeko gunea ere.
- Binilo beltzeko errotulu bat, letra estandarizatuak dituena atzetik argizatutako errotuluaren aurreko aldean.

Elektrizitatea:

- 1,1 KW-ko kaxa elektrikoa.
- Hozkailu eta beste tresna batzuetarako entxufe-oina.
- Beste erabilera batzuetarako entxufe-oin hirukoitza.
- Argiztapen orokorra LED fokuen bidez.
- Potentzia elektrikoa 300 Wko gutxieneko soberakina, erabilera librerako.

STANDAREN XEHETASUNAK

Zorua:

- Gune horri egokitu zaion koloreko moketa.
- Binilo beltzeko errotulua, letra estandarizatuarekin, atzeko argidun errotuluaren aurrean.

OHAR GARRANTZITSUAK

1 Igo eta 2 aukeran **HOZKAILUA EZ DA SARTZEN.**

- Hozkailua behar duten enpresa erakustariak azokaren antolakuntzari eskatu beharko diote, eta zuzenean fakturatuko zaio enpresa erakusketariari.

2 Kopa-zerbitzua behar duten enpresa erakustariak azokaren antolakuntzari eskatu beharko diote, eta zuzenean fakturatuko zaio enpresa erakusketariari.

3 Aukeratutako standak dituenaz besteko altzari, logotipo edo bestelako elementuren bat behar dutela uste duten enpresa erakusketariak azokaren antolakuntzari eskatu beharko diote, eta zuzenean fakturatuko zaio enpresa erakusketariari.

- BWW azokako arduradunaren helbide elektronikoa/kontaktua bidaliko dizuegu zerbitzu horiek eskatzeko.

4 BWWren antolakuntzak adierazi digu ezin dela instalatu BWWren irudi orokorra aldarazten duen roll upik edo bestelako sustapen-elementurik. Erakusketa egin ahal izateko gainazalak erakusmahaia eta, halakorik badago, beira-arasa dira.

5 Parte hartzen duen enpresa bakoitzaren standaren errotuluan izena emateko eskabidean adierazitakoa aplikatuko da, standaren errotuluaren izena atalean. Izen hori erakustokiaren errotuluan eta azokaren katalogo ofizialean agertuko da. Edozein aldaketak kostu gehigarria izango luke, upelegiari zuzenean BWW erakundearen bidez fakturatuko balitzaio.

EUSKO JAURLARITZAREN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2024KO UZTAILAK 24

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.



Leku kopurua mugatua denez, BWW 2025ean parte hartu nahi baduzu, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak ahalik eta lasterren hona bidaltzea: agro@camarabilbao.com

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Izena emateko formularioa osoa bete behar da.

[IZENA EMATEAK](#)

ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia:

ES49 3035-0179-61-1791069900

Laboral Kutxa HAZIren izenean.

BIC de Laboral Kutxa: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena +
BARCELONA WINE WEEK 2025".

EUSKO JAURLARITZAREN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

Izena ematea formalki egindakotzat jotzeko, IZENA EMATEKO FORMULARIOA bete eta ORDAINAGIRIA bidali beharko duzu, bai eta BETEBEHAR FISKALAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK EGUNEAN DAUDELA ADIERAZTEN DUTEN AGIRIAK ere. Izena emate-data gisa, ondorio guztietarako, inskripzioa noiz ordaindu den adieraziko da.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ du esan nahi enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartuko duenik. Horrek jakinaraziko du inskripzioa onartu dela.

ENPRESA ERAKUSTARIAK FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, PARTE-HARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDORE, PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN % 100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.